



**2014KO APIRILAREN 26KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko apirilaren hogeita seian, goizeko hamarretan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Joseba Imanol Aran Barandiaran, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Ane Irastortza Izagirre, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Inazio Estensoro Eskisabel eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAKO MAHAIKIDEAK IZENDATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren 2014ko maiatzaren 25ean egingo diren Europako Legebiltzarrerako Hauteskunde Mahaietarako partaideen aukeraketari ekiten zaio, zozketa bidez, Hauteskunde Erregimen Orokorrekoa den Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzeko dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, goizeko hamarretan eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

